

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

Honako espediente hau jendaurrean jarri eta erreklamazioak aurkezteko epea hastea: onura publikoko 752 zenbakiko mendia, "Idubaltza/Odoibaltza eta Garondo" izeneko (Lantenoko herriaren jabetzako da eta Aiarako udalerrian dago), mugatu eta mugarritzea, Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan eta Mendien Arautegian ezarritakoaren arabera

Bukatu direnez Aiarako udalerrian dagoen eta Lantenoko herriarena den "Idubaltza/Odoibaltza eta Garondo" izeneko onura publikoko 752 mendiaren mugaketaren lehenengo berrikusketa egiteko lanak, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onartutako Mendien Araubidearen 120. eta 121. artikuluek xedatutakoaren arabera, jakinarazten da jendaurrean jartzen dela mugaketaren espedientea Lantenoko Administrazio Batzarraren bulegoetan ("Las Escuelas" kultura zentroa, Pizparruchi auzoa 35, 01478-Llantenoko), hamabost egunez, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera, interesa dutenek aztertzeko aukera izan dezaten.

Era berean, iragarki hau argitaratu ondoko hogeita hamar egunean zehar, onartu egingo dira zuzenbidearen arabekoak diren erreklamazioak; Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, dela Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), dela Lantenoko Administrazio Batzarraren bulegoetara eramanda ("Las Escuelas" kultura etxea, Pizparruchi auzoa 35, 01478 Lantenoko).

Mugarriztatze lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugarriztatze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioez den bezainbatean, erreklamazioan berariaz aipatu behar da administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkeztu dela, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko alde aurreko izapide gisa.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 18a

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTÁLORA